



© sabino arana fundazio

Eusko Jaurlaritzak dolu-eguna izendatu zuen 1960ko Aberri Eguna, eta aurretik prestatutako hainbat eta hainbat ekitaldi bertan behera geratu ziren

Aberri Eguna

“El día de Aberri-Eguna debe ser siempre un día de esperanza en el futuro”

Jose Antonio Agirre, Paris, 1950eko Aberri Egunean

MIREN BARANDIARAN
BEASAIN

ORAIN 50 urteko Aberri Eguna tristea izan zen, oro har, euskaldunentzat. Jose Antonio Agirre lehendakaria aste batzuk lehenago zendo zen, eta haren heriotzak eragindako zurrara handia zen artean. Eusko Jaurlaritzak dolu-eguna izendatu zuen 1960ko Aberri Eguna hura, eta aurretik prestatutako hainbat ekitaldi bertan behera geratu ziren, bai erbestean baita Euskal Herrian ere. Agirri omenaldia egiteko baliatu zuten eguna, agintariiek, politikarietan eta euskal herritar xumeek.

Zalantzak gabe, Aberri Eguna harrian bizi izandako giroak zerikusi gutxi izan zuen 1932koarekin, lehen Aberri Egunarekin. Espainiako Gortean diputatu zen orduan Agirre. Ez zuen zizenean parte hartu lehen Aberri Eguna antolaketa-lanean; ardura hori EAJren Euzko Idazkaritza Burubak hartz zuen bere gain -besteak beste, Errepublikako garaian alderdiaren propagandako bitarteko nagusi zenak -. Aspaldian zebiltzan jelkideak aberriari egun bat eskaini nahian. Ordurako, Catalunya nahiz Galizako abertzaleek bazituzten beren aberriaren egun propioak; hainbat jelkiderentzat eredugarri zen Irlandak ere bazuen horrelako ospakizun, Pazko Igandean. 1923an, bestalde, egina zuten jeltzaleek antzeko ospakizun bat, Día de la Integridad Vasca deitu ziotena eta Aberri Eguna aurrekari gisa har dezakeguna.


1932an ikusi zuten aberriaren eguna handikirlo ospatzeko aukera ezin hobe, Sabino Arana abertzaleasunera bihurtu zela 50 urte bete ziren harten. 1882ko zen gertakari hura, Arana orduan jabetu baitzen, Luis anaiarekin hizketan ari zela, Espainia ez, Bizkaia zela bere aberri bakarra eta benetakoa. Omenaldi handia

egingo zioten Aranari bere bihurtearen urrezko ezteietan, eta, bide batez, artean bizirik zegoen eta EAJren EBBko lehendakaria zen Luis anaiari ere bai. Baino, horretarako bakarrik ez. Lehen Aberri Eguna hura alderdiak berriki bereganatua zuen Sabin Etxea inauguratzeko ere aprobetxatuko zuten -besteak beste, alderdiari lotutako hainbat erakunderen egoitzak koka-tuko zituen bertan-. Eta, noski, ospakizunarekin urte haietan EAJk izan zuen hazkunde handia erakutsiko zuten, baita alderdiaren inguruan biltzen zen komunitate zabalaen indarra ere.

Aberriaren eguna ospatzeko Pazko Igandea aukeratu zuten, egun sei-natalua Eliza Katolikoarentzat. Horrek, jelkideek aspaldidianik aldarrikatzen zuten Jesukristo eta Aranaren arteko paralelismoa irudikatuko zuen; Jainkoaren eta Euskadiaren berpizkundearen arteko lotura ere bai. Hala, berez politikoa zen ospakizunari erlijio-osagarri nabarmenak eman zizkion. Gainera, horrekin guztiarekin garbi utzik zuten EAJ Errepublikaren politika laiko eta antiklerikalaren aurka zegoela.

Martxoaren 27an ospatu zen lehen Aberri Eguna, Bilbon, nahiz eta ospakizunak bezperan hasi eta hurrengo egunera arte luzatu ziren. Ekitaldi nagusia desfile bat izan zen, Jesusen Bihotzetik abiatu eta Sabin Etxean amaitu. 65.000 pertsona inguru bildu ziren bertara: emakumeak, mendigoizaleak, EAJko buruak, kargu publikoak..., eta horien artean Agirre diputatu gaztea.

Lehen Aberri Eguna arrakasta ezbairik gabekoa izan zen. Eta ospakizunari jarraipena ematea erabaki zuten. Hurrengo Aberri Egunek egitura bera izan zuten: bilkura jende-tsuk eta ekitaldi ezberdinak, beti ere, komunitate abertzalea osatzen zuten giza-sektore ezberdinen parte



1932ko Aberri Eguna erabili zen irudi koloretsua.

hartze handiarekin. 1933koa Donostian, 1934koa Gasteizen, 1935ekoa Iruñean... 1936koa ezberdina izan zen, herriz herri antolatu baitzuten jelkideek, Mendekoste Egunean, une hartan bizi zen egoera politiko nahasiak horretara bultzatuta. 1937ko

Aberri Egunean, bestalde, gerra izan zen protagonista. Askotan gogoratu zuen egun hura Agirrek, lehendakari moduan ospatu zuen lehena izan baitzen, baita euskal lurretan ezagutu zuen azkena ere. Bilbon egin ziren ospakizun nagusiak, eta han

izan zen bera, alderdiko agintariekin eta Eusko Jaurlaritzako gainerako kideekin batera. Errepublikako Gobernuaren legalitatepean zeuden beste herri batzuetan ere antolatu zituzten ekitaldiak, baita frontean.

Gerra zibila 1937ko uda partean amaitu zen Euskal Herrian, eta gau-zak asko aldatu ziren handik aurre-ra. Erbesteak hartu zuen ospakizunaren lekukoa: Bartzelona, Baiona, Paris, Londres, Buenos Aires, Mexico... Oro har, ospakizun xumeak izan ohi ziren, elizkizun, oturuntza eta euskal giroko jaialdien inguruan burututakoak. EAJk jarraitu zuen Aberri Eguna bultzatzale nagusia izaten, baina gerran galtziale irten ziren gainerako alderdi politikoen babesera ere izan zuen, baita -eta oso modu berezian- Eusko Jaurlaritzak eta Agirre lehendakariarena ere. Aberri Eguna, sorterra gogoratu eta munduan zehar sakabana-tuta zeuden euskaldunei arnasa emateko baliatu zituzten. Eta nazioartean euskal herriaren egoera salatzeko abagune bilakatu ziren.


Bien bitartean, Hegaldoko euskaldunek ezin izan zuten urte askotan Aberri Eguna ospatu, ez behintzat lehen bezala, publikoki. 40ko hamarkadaren bigarren erdian, II. Mundu Gerra bukatu zenean, nazioartean ezarri zen testuinguru berriak Francoren amaierarako bidea ekarriko zuela pentsarazi zien askori. Horrek, gerra amaitu zenean barnealdean lanean ziharduen euskal erresistentziari indar berria eman zion, eta Aberri Eguna era-bili zituen Diktaduraren aurkako ekintzak burutzeko. 1946 eta 1947an, adibidez, irratia emanaldiak eten zituzten eta Agirreren mezuak emititit, euskaldun askoren harridura eta pozerako. Hori bakarrik ez, debeku frankistari muzin eginez, jende andana elkartu zen Bilbon eta Donostian. Pazko Igandeetan, eta leku askotan agertu zen Aberri Eguna



nari buruzko propaganda. Baino horrelako ekintza ikusgarriek ez zuten jarraipenik izan hurrengo urteetan. Diktaduraren errepresioak ez zuen horretarako biderik utzi; nazioartea, gainera, Franco boretik botatzen ez, bere horretan mantentzen lagundu zuen, eta horrek itxaropen eza nahiz egoera berrira behin betiko egokitzeko joera zabaldut zuen hainbat eta hainbat euskaldunen artean. Eta Aberri Eguna horren isla izan ziren.

Testuinguru horretan ospatu zuen Agirrek bere azken Aberri Eguna. 1959an. Caracasen zegoen, eta bertako Euskal Etxeak antolatutako ekitaldietan hartu zuen parte. Inor gutxik pentsa zezakeen orduan hura izan zitekeen lehendakariaren azken Aberri Eguna. Handik gutxira ospakizunak ezagutu zuen bultzada handia ikusi gabe joan zen.

Izan ere, Aberri Eguneak gerra aurretik izan zuten presentzia berreskuratu zuten 60ko hamarkadan, ekonomian, gizartean eta kulturaren ematen ari ziren aldaketa sakonen ildotik eta belaunaldi berrien eskutik. Aldaketaren lehen zantzuak 1963an eman zirela esan daiteke. Orduko harten, Aberri Eguneko ohiko ospakizunen beste bat gehitu zitzaien, Pazko Astelenean, Lapurdiko Itsasu herrian, Iparraldeko Enbata kultur mugimendua deituta –sortu berria zen ETAREN babesarekin–. Aspaldiko partez, Aberri Egunk ehunga lagun bildu zituen, eta oihartzun nabarmena



1964ko Aberri Eguneko kartela

Aberri Eguneak gerra aurretik izan zuten presentzia berreskuratu zuten 60ko hamarkadan

Aberri Eguna ez zen modu bateratuuan ospatu 1978. urterarte; 'autogobernuaren alde' lemapearan egin zen

izan zuen. Benetako aldaketa, ordea, ez zen hurrengo urterar arte gertatuko. EAJk Gernikara deitu zuen 1964ko Aberri Egunean, ospakizunaren lekukoa barnealdeari itzultzea eta, bide batez, Diktaduraren aurkako borrokan jeltzideek galdua zuen protagonismoa berreskuratzezk asmoz. Deialdi hura Eusko Jaurlaritzak, EAEk eta ETAk ere babestu zuten. Segurtasun indarrek kontrolak jarri eta ahalegin handiak egin zituzten ospakizuna zapuzteko, baina milaka izan ziren Gernikara iristea lortu eta erregimenari desafio egin ziotenak. Bertan gertatutako lau haizeetara zabaldut zuten jeltzaleek –Gernikako Arbolaren aurrean dagoen mutilaren argazki famatuak, adibidez, bira eman zion munduari–, eta horrek Diktaduraren aurkako borrokari arnasa eman zion barnealdean.

Gernikakoak norabide berria eman zion Aberri Egunari. Handik aurrera Hegoaldean egin ziren ospakizun garrantzitsuenak: Bergaran 1965ean, Gasteizen eta Hendaia-Irunen 1966an, Iruñean 1967an, Donostian 1968an... EAJ eta ETA izan ziren protagonistak nagusiak; baina Erregimenaren aurka zeuden gainerako euskal alderdiak ere gehitu zitzaizkion. Deialdiak modu bateratuuan egiten saiatu ziren, baina asko izan ziren ETAK bere aldetik egin zituenak –horietan lehena 1966koa, Eusko Jaurlaritzak eta gainerako alderdiekin Gasteizen elkartzeari uko egin eta Hendaia-Irunera deitu

EGILEA



Miren Barandiaran Contreras

(Beasain, 1974) Historian lizenziatu zen 1997. urtean. Euskal Herriko historia garaikidearen inguruko ikerketa lanak egin zituen hamar urtez. Hainbat libururen egile da, tartean 'Aberri Eguna: 70 años de fiesta y reivindicación', Sabino Arana Fundazioak argitaratua. Gaur egun Lazkaoko Beneditarren Biblioteca eta Artxiboa egiten du lan.

zuenekoa-. Neurri handi batean Aberri Eguna Diktaduraren aurkako borroka eguna bilakatu ziren. Eta errepresioa Aberri Eguna parte bihurtu zen: kontrolak, liskarrak segurtasun indarrekin, atxilotak... Horrenbestekoa izan zen errepresioa, ezen 1969tik aurrera EAJk deialdi publiko bateraturik ez egitea erabaki baitzuen.

Aberri Eguna oihartzuna handia zen jada 70eko hamarkadaren erdialdean. Giro politikoa pil-pilean zegoen eta, errepresioak errepresio, geroz eta gehiago ziren Aberri Egunean kalera irtetzen zirenak. Alderdiek deialdi bateratuak egiteko saikerak egiter zituzten urtero, baina azkenean talde bakoitza bere aldetik ospatzen zuen eguna. Gauzak horrela, Aberri Eguna ez zen modu bateratuuan ospatu 1978. urterar arte. AP eta UCD ez beste alderdi politiko guztiak, sindikatuek eta Euskal Kontseilu Nagusiak egin zuten deialdia, momentu hartan bor-bor zeuden hiru aldarrikapen ikur hartuta: autonomia estatutua, udal haudeskundeak eta krisi ekonomikoaren aurkako neurriak. 40 urteren buruan Hegoaldean baimendutako lehen Aberri Eguna izan zen hura, eta milaka eta milaka izan ziren lau hiriburuetan egindako manifestaldietan parte hartu zutenak. 1979ko Aberri Eguna ere modu beretsuan ospatu zen, Euskadi autogobernuaren alde lemapearan. Trantsizio urte haietan abertzaleek eta ez abertzaleek hartu zuten parte Aberri Egunean, nahiz eta nabaria izan zen lehenengo nagusitasuna. Eta Aberri Eguneak oihartzun handia izan zuten jada baimendua zegoen prentsan.

Handik aurrera gauzak zeharo aldatu ziren. Abertzale ez ziren taldeek utzi egin zioten Aberri Eguna ospatzeari. Horretaz gain, desagertu egin ziren deialdi bateratuak, eta alderdi politiko bakoitzak bere ospakizunak egin zituen, mezu eta esanahi propioekin. EAJk, esaterako, Errepublika garaian Aberri Eguneak izan zuten festa kutsua berreskurtu zuen, aldarrikapenak erabat bantzertu gabe. Ezker abertzalearen inguruko taldeek, aldiz, mantendu egin zuten borrokarako deia. Hainbatek, bestalde, Aberri Eguna Euskal Autonomia Erkidegoaren eguna izendatzeko saikerak egin zuten, baina proposamenak ez zuen aurrerar egin. Oro har, Aberri Eguna galdu egin zuen Errepublika garaian nahiz 60 eta 70eko hamarkadetan izan zuen oihartzuna eta indarra. Urteen pederioz, aldarrikapen kutsua erabat galdu gabe, hausmarketa egiteko egun bilakatu zen. Eta aurten, Agirreren heriotzaren 50. urteurrena ospatzen dugun honetan, gauzak ildo beretik jarraituko dute.

BATBIHIRULAU BOSTSEIZAPIZORTZI
BEDERATZIHAMARHAMAIKAHAMABI
HAMAHIRUHAMALAUHAMABOST
HAMASEIHAMAZAZPIHAMAZORTZI
HEMERETZIHOGEIHOGEITABATHOGEI
TABIHOGEITAHIRUHOGEITAIALAU
HOGEITABOSTHOGEITASEIHOGEITA
ZAZPIHOGEITAZORTZIHOGEITA
BEDERATZIHOGEITAHAMARHOGEITA
HAMAIKAHOGETAHAMABIHOGEITA
HAMAHIRU. UNODOSTRESCUATRO
CINCOSEISSIETEOCHONUEVEDIEZON
CEDOCETRECECATORCEQUINCEDIECI
SEISDIECISIETEDIOSCIOCHOICIECINUEVE
VEINTEVEINTIUNOVEVENTIDOSVEINTI
TRESVEINTICUATROVEINTICINCOVEINTI
TISEISVEINTISIETEVEINTIOCHOVEINTI
NUEVETREINTATREINTAYUNOTREINTA
YDOSTREINTAYTRES.

CLICK: www.lehendakariagirre.eu

hermes

www.sabinoarana.org

HERMES 33: AGIRRE LEHENDAKARIA